



Anoetarrok Auzolanean: «Udalak ez ditu esandakoak bete»

ANOETA ▶ Udalak
«herritarrei informazioa
ez ematea» salatu du
herri plataformak

KEXAK ▶ Ingurumena,
kiroldegia, ekonomia,
etxebizitzak eta euskara
izan dituzte hizpide ▶ 5



Igor Urkola, Gorka Otxoa-Aizpurua, Iñaki Iturriotz eta Mikel Urkola, atzo prentsaurrekoan. n. urbizu



MAIDER JAUREGI

MANUEL EIGUREN ▶ GOTZAINA

«Evo Moralesek herri
indigenei, behar zuten
lurra eman die»

Boliviako Beniko biztanleei aurrera
egiten laguntzen die goiztarrak ▶ 6

TOLOSA ▶

Ezker Abertzaleak Udaleko apartheid egoera salatu du

«Eskubide zibilen eta politikoen
ukazioak» hiru urte bete dituenan,
soluziorako oinarriak finkatu ditu ▶ 7

IRURA ▶



Ezker Abertzaleko kideak. n. u.

Jai giroan, agur Kultur Asteari ▶



TOLOSALDEA
GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA

- ▶ Lanbide Heziketako Ikerketa eta Berrikuntzarako Institutua
- ▶ 2001ean, Eusko Jaurlaritzako Zilarrezko "Q" saria
- ▶ 6 urtez, ISO 9002 ziurtagiriarekin

Goi-mailako zikloak: Euskaraz

- Mekanizazio Bidezko Produkzioa
- Eraikin eta Prozesu-Instalazioen Mantenimendua eta Jartzea
- Metal-Eraikuntza
- Erregulazio eta Kontrol-Sistema Automatikoak
- Administrazio eta Finantzak
- Informatika- Sistemaren Administrazioa

IZEN EMATEAK / AURREMATRIKULA:
EKAINAREN 1etik 7ra



Tfno.: 943 65 11 47 / 943 65 06 64
Fax: 943 65 18 56
idazkaritza@tolosaldea.com
www.tolosaldea.com
Santa Luzia, 17 • 20400 TOLOSA



UZTURRETIK ▶ KRISTINA URRUTIA

Bekeskeria bai galanta!



Urtetoko zita baten testigu izan naiz egunotan. Barakaldoko Erakustazokan (BEC!-en) egiten den Expovacaciones turismo azoka ezagutu dut. Turismoa eta gastronomia lotzen ditu 117.000 metro kua-drotan.

Joan naiz ba, arestian esan bezala, eta

a zer nolako sorpresa han ikusitakoekin. Lehenengoa, harridurazko sorpresa, baina atsegina: BECeko lehenengo pabiloira sartzearekin bat, hara non ikusten ditudan lehendabiziko euskaldunak, zein eta Leitzarrak! Taloak enpresako 2 ordezkari (erdi aspertuta, dena esan behar bada). Euren azkeneko berrietasuna aurkeztera joanak dira: *Talo Pizza*. Hantxe zeuden bai, erakusmahaietz inguratuta, Asturiasko Fabadaren stand-a zuten atzean eta zartagi saltzaile bat alboan. Izen handiko etxeak eta hasi berriak, denak elkarren ondoan. Tartean gure herritarrak. Berriz

ere esanen dute, *edozein tokitarra joanda ere beti leitzarren bat izaten dela*, baita Expovacaciones azoka erraldoian ere.

Egin dut aurrera nik ere. herrialdez herrialde ibili naiz: Iparraldeko foie, Salamancako txorizoa, Andaluziako edariak edo Galiziako pulpoa. Denak pasa ditut. Atzerritarrak ere bai: Mexikoko Koronita, Kubako mojitoa, Italiako pasta eta Argentinako haragia. Baina iritsi naiz halako batean hirugarren pabiloira, *Bizkaia Bizi* izenekora, eta bat batean lotsak hartu nau. Ez pabiloi guztia Bizkaiko Foru Aldundiak hartua duelako

(arrunt desproporzionatua den arren: gainontzeko pabiloietan herrialde mor-doa biltzen den bitartean, hirugarren hau oso osorik Bizkaia-erentzat da... Eta gero *Leitza handi* esaten dute...). Baina gatozen harira, lotsak hartu nauen unera. *Nerbioi* izeneko stand-ak eltxoz betetako tokia ematen zuten, jendez gainezka, bata besteari bultzaka zeinek gehiago lortuko. Eta ez ziren informazio orriak eta turismo eskaintzak lortzeko ez, Pintxoak baizik. Dohain eman dituzten pintxoak, jakina. Hura lotsa! Ez dut aspaldian halako bekeskeriarik ikusi, horixe da eta bekeskeria jaun andreok.

DATUA ▶

29

Iaukote I. Taldekako Sega Lehiaketan, Tolosan.

Almitza sega elkarteak antolatuta, lurreamendiko zelaietan izango da gaur goizean I. Taldekako Sega Lehiaketa. Kirol horretan eskarmentua duten zein lehen aldiz aritzen diren Euskal Herriko eta Kataluniako 29 iaukote eskainiko dute ikuskizuna: Crema Catalana (Girona), Nahiko lan (Zaldibia), Bertsolari elkarte, Bertsolariak Goierri, Errezil, Baliarrain, Amasa, Peluaga (Oiartzun), Tolosaldea, Elkarre (Legorreta), Gaztelu Gorri (Gaztelu), Gaztelu Berde (Gaztelu), Otolá (Gaztelu), Arrubi (Zaldibia), Zaldibia, Trikitixa elkarte, Escudella (Girona), Carn D'Olla (Girona), Asteasuarrak, Aiara (Aiara bailara), Aia, Bertsolarien Lagunak (Lapurdi), Iturrai (Belauntza), Undurraga (Zeanuri), Uribe (Zeanuri), Anoeta, Erasundarrak (Aia), Izetatarrak (Aia), eta Goierrialdea (Beasain-Lazkao).

KOMIKIA ▶

GORKA SALABERRIA



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA

2006 Harpidetza kobraketa kanpaina

- ▶ egunero 8 orrialdeko kalitateko egunkaria, euskaraz
- ▶ uneoro informazioa eskura www.tolosaldeko-hitza.info

KONTU KORRONTE bidez ordainduaz
EROSOAGOA eta 2 ZATITAN
ORDAINTZEKO AUKERA



txartel berriarekin abantailak!
beherapenak agurretan, eskeletan
eta iragarki laburretan
besteak beste



□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

egunean 0,18 zentimoren truke etxean

ESANAK ▶



ABRAHAM OLANO
TXIRRINDULARI OHIA

«Maratoia gustatzen zait, ez didalako bizikletak bezainbeste denbora eskatzen»

«Txikitari atletismoan aritzen nintzen dezentetan. Eta urtero ikusten nuen Behobia-Donostia lasterketa. Ziur nongoen egunen batean nik ere korrituko nuela proba hori. Hala, txirrindularitza utzi nuenean askatasun osoa izan nuen parte hartu ahal izateko»

«Goi mailako kirolariak izan garenok erresistentzia handiagoa dugu. Txirrindulariok hainbeste urtetan sufritu dugu bizikleta ganean! Hain gogorra izan da! Iraganetik anbizioa gelditzen da, sekula galtzen ez dena»

'Dominical' (2006-04-06)

TOLOSALDEKOHITZA.INFO ▶

Zer iritzi duzu Voith-Gorostidiko etxebizitzaren zozketan parte hartu ahal izateko jarritako baldintzaz?

Beti bezala, aberatsei mesede. ▶

Bai hoixe! 32 milioi! Merkeak direla esango dute, gainera... Gaur egungo prezio normalak 100 kilokoak direla pentsatuta, ba noski baietz!!!! ▶

Etxebizitza horien zozketan parte hartzeko soldaten inguruan jartzen diren mugak ez daudela oso ondo pentsatzen dut nik. Beti bezala, hor soldata majoa dutenei laguntzen zaie. Mugak zabaldu egin behar dira, baina behetik, ez goitik. Hilean 400 mila pezeta kobratzen duenak etxebizitza libre bat eros dezala eta utz ditzala tasatuak soldata eskasa dugu-nontzat! Gazteak laguntzea bada asmoa, zabaldu muga hori azpitik, askok ezin baitugu ia iritsi eskatutako kopurura. Etxea nahi dugun gehienok gazteak gara, eta gaur egun gazteak dauden moduan, gure lehendabiziko lana aurkitu dugu, edo batera eta bestera gabiltza lan bila. Beraz, aurrezteko denborarik ere ez. Pentsatu gutxi dutenengan, eta ez eman gehiago dagoeneko asko duenari. ▶

Araza larriagoa da oraindik bikoterik ez baduzu, edo zure bikoteak ez badu lan egiten... Esan nahi dut, soldata bakarrarekin are larriagoa dela egoera. Orain arte ez da ia etxerik egin gure herrian, eta egin direnak aberatsentzat izan dira, beti bezala. Orain aukera dugula, ezin gauzak errazago jarri? Udalak gazteak jaioterrian egelditza nahi badu, behintzat... ▶

Hor ari dira Udalekoak Voith-Gorostidi gora, eta Voith-Go-

rostidi behera, harropuzkerietan, sekulakoa egin balute bezala! Egin al dute? Gazteentzako etxebizitzak, eta gazteen baliabideen neurria eginak. Egia al da hori? 12.000 euroko soldata gutxienez, eta 42.000 euro gehienez. Esango al dit nork kobratzen duen hainbeste? Zein gazte irabazten du hilean 700.000 pezeta? Agian erratuta nago eta beste mundu batean bizi naiz, zeren eta orain arte zifra horren erdia kobratzea asko zela iruditzen baizitzaidan, baina orain... Mesedez, pentsatu behingoatik soldata arrunta izan eta bikoterik gabe etxebizitza normal bat erosi nahi dutenengan! ▶

Arrazoi du aurrekoak. Propaganda gutxiago eta laguntza gehiago! Propagandan eta zuzkerietan gastatutakoa aurrez, eta gazteak laguntzera bideratu! Gaur bertan egin dut errenta aitorten madarikatua, eta ez naiz iritsiko jarri duten mugara. Eta ez dut uste bakarra izango naizenik. Horrela lagundu nahi al digute gazteoi? ▶

Tolosako neska gazte bat nahiz eta harrirtuta nago etxebizitza hauetako bat lortzeko jarri dizkiguten arauekin. Zenbat gazte irabazten dute urtean 12.000 euro baino gehiago? Niri, behintzat, ilusioak kendu eta ondo izorratu didate. Tolosako gazterik herritik alde egin beharko du, ez dakite zertan ari diren. Besterik gabe, nire kasu berean dagoen jendeari animoak eman eta esan egunen batean lortuko dugula arau hauek aldatzea. ▶

EZIN ULERTU ▶

Zer iruditzen? Lotsagarria da Udalak *faradatzea* haiek egin behar dituzten etxeei buruz... Badirudi oparitu egiten dituztela... Zein gazte du hainbeste diru? Eta, gainera, 400.000 pezetan irabazten duenak ere badu eskubidea zozketan parte hartzeko!! Nola nahi dute gazteen emantzipazioa lortzea? Gainera, orain Udalak kredituei buruzko hitzaldia ematen du. Barkatuko didate udal ordezkariak, baina guk, gazteok, behar duguna ez da

kreditua nola eskatzeari buruzko hitzaldia baizik eta krediturik eskatu behar ez izatea. ▶

Etxe berriak eraikitzea oso ondo dago, baina nik uste hori ez dela bidea. Lehenengo hutsik daudenak bete behar dira, eta ondoren hasi gehiago egiten. Izan ere, azken urteetan Tolosako paisaia asko aldatu da eta etxerik betetzen ari da ingurunea. Aldi berean, populazioa ez da igo. Orduan? Nolatan da posible hau? Etxe hutsak betetzen hasi beharra dago, eta ez neurri gabe eraiki. ▶

EIDER ▶ «ETXE HUTSAK BETE LEHENENGO»

Nik ez dakit zeintzuk diren jarri dituzten baldintzak, ez bainaz hemengoa, baina badirudi inguruan eskatzen ari direnen berdintsuak direla, hau da, ia ezinezkoak. Bi soldata behar dira, bi soldata on... Gaur egun lan egoera ez da batere ziurra: askok ezin dute inon ere sartu. Zozketa bidez egiten direnean, oso jende gutxi lor dezake etxebizitza eta, gainera, askotan zerrendetan beste batzuek ez dituzten beharrak dituzte; hau da, beste zerbaitean sar daitezke Ez da justua... Normala da jendea 30 urterekin gurasoen etxean egotea, edo etxetik alde egiteko gogoia joatea. ▶

NIHAUR ▶ «BETI OZTOPOAK»

Nik uste etxebizitzaren arazoa ez dela zuten herrikoak bakarrik (ni ez naiz Tolosakoa). Gazteek dugun arazo larrienetakoa da, eta badirudi inorrek ez duela ezer egin nahi horren kontra. Etxebizitzak oso garesti daude, eta horregatik *salzten* dizkigute merke balira bezala udalek tasatutako etxebizitza horiek. Merke? Nik, behintzat, 30 kilometrik gorako etxeak, objektiboki ikusita, ez ditut merke ikusten. 100 milioikoekin konparatuta ez bada, behintzat! Aukera gutxi geratzen zaizkigu gazteoi: edo gurasoen etxean betiko bizi, edo etxeren bat okupatu, edo zorretan sartu eta jubilatutakoan bizitzaz disfrutatu ordez etxea ordaintzen bukatu. Zer herentzia utziko diegu gure seme-alabei? Zorrak, zorrak eta zorrak. Eta bitartean, noski, bizitza osoa segi lanean, solda-

ta kaskar batekin eta baldintza kaskarretan. Baina ez dago besterik guretzako. Eta aberatsek aberats jarraitzen dute, bat, bi, hiru... etxekin. Inorrek ez al du ezer egingo honen kontra? Nahikoa da! ▶

Zerbait egingo gauzak aldatzeko? Horretarako jarrera gutxi ikusten dut nik... Baina errua gurea ere bada. Halabeharrez, esan nahi dut. Azkenean sisteman erortzen garelako... Ez baduzu gurasoen etxean betiko bizi nahi eta zure bizitza antolatu nahi baduzu, azkenean ez dakit zenbat kiloko etxea erosi eta zorretan egongo zara bizitza osoan. Uzten al digute, bada, beste alternatibarik? Ni oso kritikoa naiz Voith-Gorostidiko etxebizitzaren prezioekin, jarri dituzten baldintzeekin, eta bestelakoekin. Baina badakit, azkenean, izena emango dudala, eta hori eta gehiago ere ordainduko dudala azkenean. Halabeharrez. ▶

HALABEHARREZ ▶

Aurretik joan dadila: nik izena emango dut. Egun alokairuan bizi gara, azken 6 urteetan bezala. Ez da erraza horrela bizitzea, hau da, uneoro pentsatzea ez dela zure etxebizitza eta gauza asko aldatzeko baimena eskatu beharra. Agian ohitura falta izango da, Europako beste herrialde batzuetan biztanlegoaren %50 inguru alokairuan bizi delako. Hemen ohitura bakoitzak bere etxebizitza izatearena da. Bada, izena emango dugu, baina egoera ez zait batere zuzena iruditzen. Bikotea izanik aukera dugu baldintzetan sartzeko, baina bakarka ez zen posible izango. Honetan gutzian harridura handiena sortzen didatena 32 kiloko etxebizitza bat *txolloa* dela esaten dutenak dira. Gainera, askotan gazte jendeak esaten du hori. Zoraturata gaude? Nola izan daiteke *txolloa*? Hausnarketa sakon eta zabalago egin beharra dago eskubide bat horrelako negozio bihurtzen denean. Zaila da etxebizitzaren arazoari erantzun bat bilatzea, baina gizarteak, eta bereziki gazteok, mugitu beharko dugu... ▶

'TXOLLOA' ▶

iragarki laburrak ▶

LANPOSTUAK

Gidariak. Udaletan eta Eusko Jaurilaritzan laster lanpostuak B1, BTP eta C1. 943 31 37 82.
Garbitzaileak. Lanpostu libreak: Eusko Jaurilaritza, ikastetxeak, ospitaleak. Informazioa 943 31 37 82.

Mantenimendu Ofiziala. Ospital,

egoitza eta udaltxerako. Informazioa doan. 943 31 37 82.
Gipuzkoako Foru Aldundiak behar ditu: sukaldari laguntzaileak, obra zaintzaileak, gidariak, zaintzaileak, basozainak,

laborategi teknikariak, garbitzaileak, 943 31 37 82.
Osakidetzak. Lanpostu libreak. Teknikariak, laborategi laguntzaileak, erizain laguntzaileak, zeladoreak. Informazioa doan. 943 31 37 82.
Langileak. Igeltseroak, elektritzistak, iturginak, lorezainak,

palistak, gidariak. Udaletxerarako lanpostu libreak. Informazioa doan. 943 31 37 82.
Administrari laguntzaileak. Beasain, Bergara, Sorraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro eta Anoetako udalek administrari laguntzaile lanpostuak bete behar

dituzte. Informazioa doan. 943 31 37 82.
Aireportuak. Lanpostuak betetzeko: bezerorari arreta, aireko kontrolatzaileak, suhiltzaileak, mantentze-lanak. Informazioa doan. 943 31 37 82.

KOMUNIKABIDEAK ▶

Tolosa Herria Hedabideek urteko kobraketa kanpaina hasi dute, abantailak eskainiz

Egunean 0,18 zentimoretatik, harpidedunak HITZA etxean jaso eta zozketetan eta deskontuetan parte hartuko du



Hemendik aurrera, kuota ordaintzen dutenek baino ez dute jasoko HITZA etxean. HITZA

ERREDAKZIOA

Tolosa Herria Hedabideak enpresak hasi berri du 2006ari dagokion harpidetza kobraketa kanpaina. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkaria argitaratzen du (www.tolosaldeko-hitza.info ere badu), «eta ematen dugun zerbitzu komunikatiboa kontuan hartuta, irakurleek harrera ona egitea espero dugu», esan du.

HITZAgatik ordaintzen dutenek abantailak izango dituzte: etxean jasoko dute egunkaria, zozketetan parte hartuko dute eta deskontu batzuk izango dituzte. HITZA jasotzeagatik aurtengo kuota 50 eurokoa da (azken batean, egunero 0,18 euro dira) eta *Harpidedun txartela* jasoko dute, zozketetarako eta deskontuetarako.

«Behar-beharrezkoa da»

Tolosa Herria Hedabideek egin izan dituzte orain arte kobraketa kanpainak eta, esate baterako, iaz irakurleen arteko kontaktatutakoan %65ek ordaindu zuten. «Aurten ere behar-beharrezkoa da irakurleen diru ekarpena. Gu ahalegin handia egiten ari gara, egunkariaren bidez eskualdeko informazioa etxeraino eramanez eta hizkuntzaren normalizaziora begira ekarpena eginez. Horrek kostu handia dakar».

Horretaz gain, erakunde publiko den diru laguntza ez da behar bezainbestekoa, batez ere Eusko Jaurlaritzarena, urterero gero eta laguntza txikiagoa ematen duelako.

Kobraketa kanpaina honetan, HITZAK etxeko atariko giltzak ere eskatuko dizkiete irakurleei, egunkariaren banaketa hobetzeko asmoz.

Ordaintzen ez duenak etxean ez

Tolosa Herria Hedabideak 2003tik ari da HITZA egunkaria kaleratzen eta kazeta jasotzeko izena emandakoei etxera banatzen (lehenago, *Tolosaldean Egunero* zegoen). Aurreko urteetan ere egin izan du kobraketa kanpainarik, autofinantzaketan handiagoa lortzeko, eta emaitzak onak izan dira.

Orain arte HITZAREN zerbitzua ordaindu ez dutenek ere egunkaria etxean jasoko dute, baina hemendik aurrera ez. «Urte batzuk badira HITZA ateratzen dugula egunero eta, gure ustez, bada garaia irakurle guztiek proiektu hau ekonomikoki ere baloratzeko. HITZA nahi baduzu, logikoena zerbitzu hori ordaintzea da. Urtean 50 euro baino ez dira. Gainera, egunkaria etxeraino eramateak kostea du», diote Tolosa Herria Hedabideek. ◀

PRODUKTUAK ▶

Tolosa Herria Hedabideen helburua eskualdeko euskarazko hedabideen sarea osatzen joatea da. Bide horretan, gaur egun bi produktu ditu enpresak.

HITZA egunkaria. HITZAK egunero irakurleei zerbitzu garrantzitsua ematen die.

▶ 8 orrialdekoa da. Tarteka, 12 orrialde ere egiten ditu.

▶ Asteartetik igandera argitaratzen da HITZA.

Urtean, 282 aldiz.

▶ 30 herrien berri ematen du.

www.tolosaldeko-hitza.info.

▶ Edizio jarraitua du: momentuko albisteak sartzen ditu. Paperekoak ere bai.

▶ Parte hartzeko aukera handia dute irakurleek: albisteen erantzunetan, inkestan, eztabaidan...

▶ Beste hainbat atal ditu.

HARPIDEDUNAREN ABANTAILAK ▶

1 HITZA etxean jasoko du.

Egunkaria etxean jasoko du kuota ordaintzen duenak (salbuespen gutxi batzuk izango dira), asteartetik igandera bitartean, beti bezala.

2 'Harpidedun txartela'.

Harpidedun txartela jasoko du laster (ondokoa bezalakoa).

3 Zozketak... TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN ordain-



tzaileak abantailak izango ditu, zozketa bidez: bidaiak, abentura irteerak, afariak... HITZA egunkaria zozketa horiek-eta jakinarazten joango da.

4 Deskontuak.

HITZAREN agurretan, eskeletan eta iragarki laburretan, besteen aldean deskontuak izango ditu harpidedunak.

FotoDepilazioa

Dori Apaindegia
943 65 49 53
Gernikako Artzabaren Lortzeak, 4

Shuyana Edergintza
943 67 54 89
Eskolapostakako Lortzeak 3-1ª A

120€
Emakumezkoak ingiak
+ besapozak
Beleko 1

PROMOZIO LIMITATUA
EKAINAREN 4 ARTE TOLOSAKO
DEPITOTAL ZENTRUTANI!

240€
Bakarra promozioa
Beleko 1

AZOKA ▶

Goiz alai eta produktuen aukera ugaria, atzoko azokan

PABLO ALBERDI

Azoka egun animosoa bizi genuen atzo Tolosan. Arlo batzuetan eskaintza puri purian dago, eta hau jakinda, herritar askok egin zituzten erosketak. Berdura plazan urteko garairik oparoenan gaude, bai apaingarriko landareen postuetan eta baita baratzarako landareen postuetan ere. Triangulo plazan ondo eta perretxikoen postuetan animazio handia ikusi genuen. 300 kilo ziza, 100 kilo ondo eta 20 kilo sende-ruela izan ziren mahaietan ohiko prezioetan salgai. Barazki eskaintza ere ez zen makala izan. Babak, ilarrak, zainzuriak, patata berria edota porruak ikusi genituen besteen artean.

ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
Berdura Plaza		
Gerania	2,00	-
Hortensia	10,00	12,00

Bertako produktuak		
Ziza	12,00	40,00
Errezil sagarra	1,00	-

Produktu ekologikoak		
Intxaurra	4,00	6,00
Azenarioa	2,00	2,50
Tipula	1,75	2,00

iragarki laburrak ▶

LANA
Saltzailea. Argazki denda batean lanaldi erdian lan egiteko pertsona bat behar da Photoshop-ean aditua dena. Bidali curriculum-a argazkiarekin helbide honetara: argazkilaritolosaldea@yahoo.es
Mutila. Ekainean lan egiteko behar da. Deitu asteleheneratzen 09:30etik 13:00etara 648 004798 zenbakira.
Banatzaila. Gidabaimena duen mutila behar du gu banaketa lanak egiteko, ostiralean egun osoz eta larunbata eta igandetan goizez aritzeko. Deitu asteleheneratik aurrera 09:30etik 13:00etara, 648 004798 telefono zenbakira.

SALGAI
Etxebizitza. Leitzan 100 m²-ko pisua salgai. Igogailuarekin eta trastelekuarekin. Eguzkitsua. 699 461365.

ANOETA ▶ POLITIKA

NEREA URBIZU

Anoetarrok Auzolanean plataformako kideek Udalak informazioa ez emateaz gain, esandakoak ez dituela bete salatu zuten atzo udaletxean eginiko prentsaurrekoan. Hala, Udalaren funtzionamenduari dagozkion hainbat punturen gainean jardun zuten.

Hala, plataformakoek azal dutakoaren arabera, «kiroldegia duela urte eta erdi egon behar zen bukatuta, eta ez dakite oraindik noiz irekiko duten eta ez dute azalpenik eman: hau al da Udalaren kudeaketa onaren fruituetako bat?». Bestalde, arau subsidiarioen alorrean, jakitera eman zuten, babes ofizialeko 32 etxebizitza egiteko asmoa du Udalak, non «herritarren lehentasuna ez dagoen bermatua, eta gainera, oso etxebizitza gutxi dira». Anoetarrok Auzolanean hasieran 100 etxebizitza inguru egiteko proiektuaren alde azaldu zen, baina atzera bota zuten. «zergatiaren berririk eman gabe».

Ekonomiari dagokionez, zerga batzuk % 50a baino gehiago igo dituzte, «alkateak jornada erdian 2.500 euro irabazteko». Honen aurrean, «Udalaren egoera ekonomikoa zein den jakiteko» auditoria objetiboa egitea beharrezkoa dela gehitu du plataformak.

Euskara ere hizpide

Bestalde, iraunkortasunaren bidean, Tokiko Agenda 21 ean «ez erraustegiak ez eta AHtk ere ez dute tokirik». Honen aurrean, Fidel Azpiroz alkatearen udaltaldeak duen «jarrera arduragabea» salatu zuten atzoko agerraldian.

Euskara eta kulturaren alorrean kezu dira «jarrera utzia erakusten baitute Udalekoek». Herritarren parte-hartzea ez

«Udalak informazioa ez emateaz gain, ez ditu esandakoak bete»

Udalak kudeatzen dituen hainbat gairi buruzko kezak azaldu ditu Anoetarrok Auzolanean plataformak



Igor Urkola, Gorka Otxoa-Aizpurua, Iñaki Iturriotz eta Mikel Urkola atzoko prentsaurrekoan. N. URBIZU

dutela sustatzen adierazi zuten, «aurreko legealdiko Udalak ez bezala». Izan ere, plataformaren ustez, «herriko taldeak dira, nola edo hala, herrian ekintzak egiteko eta egiteko lan egiten dutenak». Euskarari dagokionez, TEPE (Tolosadeko Euskararen Plan Estrategikoa) euskararen sustapena helburu zuten plana jarri zen martxan, «baina oraindik ez dugu urte hauetan emaitzarik ikusi; dirulaguntzak jaso zituen Udalak, baina ez dakigu ezer».

TOLOSako INMAKULADA IKASTETXEA

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Erizaintzaren Laguntza.
- Farmazia.

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Diagnosi Irudiak.
- Osasun Dokumentazioa.
- Gizarte Integrazioa.

AURREMATRIKULA: MAIATZA

Kondeko Aldapa, 5-B 20400 TOLOSA
Tel.: 943-673629 www.inmakuladatolosa.com

udaberriko eskaintza handia

Playa de las Américas Arona - Tenerife Hegoi
Hostia 8 egun 7 gau, hegaitze bitartekoa, Tenerife Presoa Arona****, Turismo 499€ 83.027 pta

TermaEuropa Baimu-etxea ar inberru, eguzki, badaketa, itasunabak.
Hostia, Elaneta eta Urdeta, Ispizua, Odeleguren, TermaEuropa Baimu-etxea, 105€ 17.470 pta

Valentzia: artez betetako bisita
Aitoneta (2 egun-gau 11 hantza) eta hostia 400€ 9.125 pta

Tenerife
Puerto de la Cruz, Urtara Hezakeren Ziklo, 8 egun-7 gau, Parque Nacionala Gai, 199€ 35.111 Pta

Tenerife
Raspúta, Urtara Hezakeren Ziklo, 8 egun-7 gau, Playa del Apartamentuak****, 219€ 36.420 Pta

Lanzarote
Playa Blanca, SU/CASA 36/019, 8 egun-7 gau, Calaca Apartamentuak****, 299€ 48.740 Pta

EROSKI bidaiak
mercezi duzu

MANUEL EGIGUREN ▶ BENIKO (BOLIVIA) GOTZAIN LAGUNTZAILEA

«Herri indigenek lurra behar zuten eta Evo Moralesek eman egin die»

Indigenei lurren inguruan laguntza ematen, kultura eta hizkuntza mantentzen, emakumeak antolatzen, osasuna eta hezkuntza lantzen saiatzen da goiaztarra

JOXEMI SAIZAR

Manuel Egiguren fraile frantziskotar goiaztarra Beniko (Bolivia) gotzain laguntzailea da 1982tik. Lehendakari berria duela eta, aldaketa garaia bizi duen herrialde hartaz eta bere lanaz aritu da Hitzarekin etxera egin duen bisitan.

Nola hartu du Boliviak lehendakari berria?

Ondo, jende gehiena behar tsua da eta oso gustura daude Evo Moralesekin. Jendeak oso erraz aldatzen du iritzia han. Alderdi tradizionaleri aurre egin eta irabazi die eta itxaropena piztu du herrian. Hasteko, keinu batzuk egin ditu: legebiltzarkide eta ministro guztiek soldata %50 jaitsi die ustelkeria hausteko, aberats ustel batzuk kartzelan sartu ditu —orain arte ez ziren kartzelara joaten—, orain petrolio nazionalizatu du... Baina gure departamenduan, Benin, aurkakoak dira, kokaleroen aldekoa delako.

Azal ezazu hori.

Benin nahiko kontserbadoreak dira eta ez daude Evo Moralesekin alde. Chapare herrian koka orria egiten dute. Herri hori Cochabamba eta Beni departamenduen arteko mugan dago eta eztabaida dago mugen inguruan. Gaur egun Cochabambakoa da. Evo Morales berez Mineroko herrikoa da, Potosi inguruan, baina duela 22 urte mehatzuloak itxi egin zituzten, 6.000 mehatzari lanik gabe gelditu ziren eta Chaparera joan ziren, koka orria lantzerako. Morales Chaparen aritu da urte askotan kokaleroen alde lanean, sindikatoak sortu eta haien liderra izatera iritsi zen.



OLAJA ESKITXABEL



BENI

«Benin nahiko kontserbadoreak dira eta ez daude Moralesekin alde kokaleroen alde agertu delako»

KONSTITUZIOA

«Abuztuan Konstituzioa egiteko asanblada osatuko da; ordezkariek hautatzeko eztabaida ugari izango da»

eta indioei eta ganaduzaleei ari zaie banatzen.

Gai horretan zer egiten du Elizak?

Bulego bat dugu abokatu batzuekin eta beste langile batzuekin herritarrek prestatzeko eta bere lurak defenditzen erakusteko. Kultura eta hizkuntza aldetik ere indigenen alde ari gara lanean. Beni departamenduan, teoriarik, 17 hizkuntza desberdin daude, baina galtzen ari dira eta oso zaila izango da bizirautea. Herri txikietan eta auzoetan emakumeak antolatzen eta laguntzeko programak ari gara burutzen. Gero Caritasek proiektu asko ditu martxan: botikak lortzea, nekazarienezako proiektuak, kartzelan, kaleko umeekin... Osasuna aldetik lan asko egiten da. Hezkuntza alorrean ere bai. Herri handietatik urrutiko bizi diren ikasleentzako hamar barnetegi ditugu, ikasturtean zehar bertan bizi ahal izateko.

Oraingo bisitan zein izan da zure zeregina?

Tarteka etortzen naiz Euskal Herrira, familia bisitatzerako eta hemendik laguntzak lortzerako. Lehen udaletan eta Eusko Jaurlaritzan aritu nintzen eta laguntza dezente lortu nuen. Oraingoan gehiago erakundeetan aritu naiz laguntza eske: klaretariak, GKE bat, Logroñon... Zerbaite lortu dut.

Zein izango da Moralesekin hurrengo erronka?

Abuztuan Konstituzioa egingo duen asanblada osatuko da. Legebiltzarkideak ez dira hor izango. Indigenek bere ordezkariek izan nahi dituzte eta alderdiek eta aberatsek ere bai. Boliviako 9 departamenduen ordezkariek kopurua zehazteko ere eztabaida izango da.

Astizko kobak S.M. enpresak, Mendukiloko leze turistikoan lan egiteko lan poltsa osatu eta udarako (ekaina-uztaila-abuztua) langile bat kontratatze deialdia luzatzen du.

Egitekoak: kobako bisita gidatuak, tiket salmenta eta taberna hartatzea.

Eskeintza: trebakuntza eta 3 hilabeterako jornada osoko kontratua. Jarraitzeko aukera.

Baloratuko da: euskalduna, zonaldekoa, antzerako lanetan eskarmentua eta ingurumen heziketaren ezagutza.

Ezinbestekoak: B1 gida baimena eta autoa (kobara bertaratzeko)

Epea: C.V.-ak maiatzak 22 (astelehena) arte jasoko dira.

Nora bidali: Plazaolako Partzuergo Turistikoko egoitzan (Turismo bulegoan).

Plazaola 21, 31870 Lekunberri
mendukilo@mendukilo.com

Koka Kolonbia, Panama, AEBetara saltzen dute. Morales beti kokaleroen alde eta nazioarteko narkotrafikoaren aurka agertu da, mafia handia mugitzen delako hor, batez ere AEBetan. Moralesekin aurreko gobernuak beti kokaleroen aurka agertu da. Chaparen hildako asko izan ziren. Orain bertan elaboratu eta industrializatu nahi dute, baina botika bezala erabiltzeko, ez drogarako.

Eta bizimodua aldatu egin al da?

Bai, lasaiago bizi gara orain.

Herria berarekin dago eta blokeo gutxiago dago. Lehen noiz-nahi nekazari bideak itxi egiten zituzten protesta gisa eta trafikoa paralizatu egiten zuten. Hilabetero gertatzen zen. Hori bukatu da Morales lehendakari izan denetik.

Zertan lagundu die herri indigenei?

Herri indigenek lurra behar zuten eta lurra eman die landatu ahal izateko. Lehen nahi zutena egiten zuten lurrekin, baina lur horiek herriarenak dira, denek, eta orain ondo markatu

TOLOSA ▶ GIZARTEA



Gerontologikoaren alde

N. Urbizu ▶ Tolosako gerontologikoa ez ixteko sinadurak bildu zituzten atzokoan ere. Adin guztietakoak ikusi ahal izan ziren, baita arpegi ezagunen bat edo beste ere, «adinduek zahartzaro duina izan dezaten». N. U.

TOLOSA ▶ MUSIKA



Musika eskola kalean

N. Urbizu ▶ Eguerditik hasita, kolorez eta soinuaz beteri-ko eguna izan zen Tolosako kaleetan zehar. 750 urte betetzen dituela eta, Tolosako musika eskolakoe- naldia egin nahi izan zioten herriari. N. URBIZU

TOLOSA ▶ KIROLA



600 haur jokoz joko

E. E. ▶ Atzo goizean jokatu zituzten Eskolarteko Uda-berri Jokoetako azken norgehiagokak. Alebinak Bera-zubini aritu ziren, atletismoko proba ezberdinetan. Eta aldi berean, benjaminak, herri kiroletan Uzturpen. E. E.

IRURA ▶ KULTUR ASTEA

Musika eta dantza, haurren emanaldian

‘Erreleboak’ antzerkiarekin amaitu zen, atzo, Kultur Astea

ESTI EZEIZA

Atzo gauean, festa giroan amaitu zen Irurako Kultur Astea. Goiz-goizetik, herriko gaztetxoak izan ziren eguneko protagonistak. Lehenengo, Ikastolako kideek, ikasleek, gurasoek nahiz irakasleek, kalejira egin zuten herritik. Ondoren, bakero eta afrikarrez mo-zorrotu, eta dantza saio dibertigarria eskaini zuten haurrek. Guraso askok, argazki eta bideo kamarak eskuan hartu, eta harro ikusi zituzten seme-alaben emanaldiak. Ederki mugitu zuten gorputza, Pirritx eta Porrotx-en *Maitte zaitut* abesti goxoarekin, nahiz beste dantzagarriago batzuekin.

Dantza saioa eta gero, haur eta helduen arteko jolasak egin zituzten. Eta hauekin amaitu bezain pronto, plazan



Adin ezberdinetako ikasleek plazan eskainitako emanaldia. E. EZEIZA

jarritako mahaietan bazkaldu zuten. Baina festa ez zen hemen bukatu, indarrak berrituta, ikastolako gaztetxoek beste emanaldi bat eskaini zuten, eta

Irrintzi taldearen eskutik, erro-meria izan zuten. Eta egun biribilari amaiera emateko, *Erreleboak* antzezlana izan zuten ikusgai Trinketeen.

TOLOSA ▶ POLITIKA

Apartheid egoera salatu du Ezker Abertzaleak



Ezker Abertzaleko kideak, atzo Tolosako udaletxearen aurrean. N. U.

ERREDAKZIOA

Tolosako Ezker Abertzaleak «eskubide zibil eta politikoen ukazio egoera» salatu zuen, atzo eginiko prentsaurrekoan. Udaletxearen kanpoaldean bildu ziren, orain 3 urtetik hona bizi duten «apartheid-a» dela eta. Bertan izan ziren kideek azaldu zuten, «bizi dugun egoera politiko itxaropentsuaren baitan, arduraz jokatu behar dugu eragile guztien el-karrizketa eta akordioaren bitartez herri honi hitza eta erabakia errespetatuko zaion es-

kenatoki batera urratsak eman daitezzen».

Bide horretan, «ilegalizazio-apartheid-a» gainditu beharreko oztopoa dela aldarrikatu zuten. Horretarako oinarriak finkatu zituzten. Batetik, Euskal Herrian eskubide zibil eta politikoen errespetua aldarrikatzea; bestetik, PSOE-ko Gobernuak ilegalizazio politika bertan behera uztea. Eta Udal hauteskundeetan herritarren babesa jaso zuten hautatuek euren eskubideak gauzatzeko urratsak emateko konpromezua hartzea.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Leitza. XXVIII. Kultur Astea. Gaurko egitaraua: 10:00etan *Pinta Eguna*, umeentzat eskulanak plazan. Biharko egitaraua: 20:00etan Euskal Herriko Emakumeen Eskubideen Kartaren aurkezpena, Aurrera elkartearen mugimendu feministako kideen eskutik.
Tolosa. Almitza elkarteak antolatuta I. Taldeko Segia Lehiaketa Herrikoia lurreamendiko zelaietan. 11:00etan zozketa, eta 11:30ean hasiko da lehiaketa.
Tolosa. George Royren *El golpe* gazteentzako filma, 17:00etan Kultur Etxean. Doan izango da.
Tolosa. Peter Bogdanovichen *Que ruina de funcion* filma, 19:30ean Kultur Etxean. Doan izango da.
Tolosa. Abraham Olanon Nazioarteko X. Zikloturista Klasika. 08:00etan izango da irteera, eta 67 kilometro egin beharko dituzte txirindulariek.
Tolosa. Udal Musika Eskolaren XII. Musikiariaren baitan, bihar, 19:00etan Miren Ceberio eta Ivan Garciak osatutako *Al Legno duo* bibolin bikotearen kontzertua Musika Eskolan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Gimeno A. Elbarren 52. 112.
Tolosa. Ebebeste J.M. Germikako Arbola 3. 943 65 10 40.

Bihar
Leitza. Larraia M.I. Elbarren 95. 112.
Tolosa. Morant R. Zabalarreta 1. 943 67 38 49.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)
 Gaur 10:30-13:00. *Hitzak hegan* magazina (errepikapena).
 Bihar 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Jose Landarekin, agenda, HITzaren erreparazioa, albisteak, elkarrizketak, lehiaketa, disko eskainiak...
 19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
 21:00-22:00. *Argizirin aitalldia*, Xoroxin irratiaren saioa, Arroza Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

Autogestioa ardatz hartuta

VILLABONA ▶ Tolosaldeko Gaztetxeek eta Gazte Asanbladek antolatuta, Gazte eguna ospatu zuten atzo, Villabonako Gaztetxean

ESTI EZEIZA

Musika, barreak eta hurremore hona ez ziren falta izan atzoko Gazte Eguneko jokoetan. Eskualdeko bost herrietako gazteek hartu zuten parte: Tolosa, Ibarra, Anoeta, Amezketeta eta Villabona. Hauek lau taldetan banatu ziren eta hainbat jokotan lehiatu ziren. Horieta batean, irudietan ikus daitezkeen bezala, taldekide batek arrautza bat botatzen zuen airera, eta bere kide batek, bi lagunengainean belauniko jarrita, hau hartu behar zuen. Hala, baten bati, arrautza soinean ere apurtu zitzaion.

Tolosaldeko gazteek *Egiten dugunean sinisten dugulako, autogestioa!* leloa izan zuten oinarri atzokoan. Hala, bertan zeudenek adierazitakoaren arabera, «goizean, jende gutxi animatu zen Besagain ingurura egindako mendi martxara, baina ondoren gazte gehiago hurbildu ziren Villabonako Gaztetxera».

Gazte jokoan ondoren, manifestazio edo kalejira poteo bat egin zuten. Egunari amaiera emateko, Izate eta Kudai taldeek kontzertua eskaini zuten. Hauek hasiera batean, gaueko 22:00etan jo behar bazuten ere, istilu batzuk medio, lehenago hasi ziren.



Bazkalondoan, taldeka banatuta, gazte jokoetan aritu ziren parte-hartzaileak. E. EZEIZA

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5. behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitzaan Udaletxeako bulegoa

hitza agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...



URTE ASKOAN
 Eider Tobar Larrauri
 (Ikaztegieta). Gaur urtebete. Etxekoan partetik.



URTE ASKOAN
 Helene Usabiaga Irazu.
 Gaur 3 urte. Zorionak ponpova! Osaba, izeba, Alaia eta Ugaitzen partetik.

PILOTA PARTIDUAK

aspepelota.com

Capellan - Zubieta
 Larralde - Elkoro

EUGI - EULATE
 GONZALEZ - PASCUAL

Baleztena - Auxkin
 Apezetxea - Urberuaga

**Tolosako Beotibar pilotalekuan
 Maiatzak 22 Astelehena
 arratsaldeko 16:30etan**